

## Kirola

Ander Iturraspe, Athleticen jokalaria: "Klubak eta, batez ere, zaleek horrelako urte bat behar zuten" > 11




## Oinezkoen, ziklisten eta auto gidarien arteko elkarbizitza bultzatu gura dute Durangon

Stop Accidentes elkarteak eta udalak mugikortasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina egingo dute Durangon

Mugikortasun ohiturak aldatzen dabilta Durangon. Bizikletaren erabilera jasangarriagaz batera trafiko arloko segurtasuna indartu guran, sentsibilizazio kanpaina abiatuko dute. Stop Accidentes elkarteak eta Durangoko Udalak bultzatutako ekimenen

harira, eskuorriak banatuko dizkiete bizikletariei bidegorritik zelan ibili azaltzeko. Duranguesa txirrindulari elkarte ere batu da kanpainara. Ikastetxeetan berbaldiak eskaintzeagaz batera, bidegorrira irteera antolatu dute ekainaren 7an. > 2



## Sukaldaritzaren gorenean

'Restaurant' adizkariak munduko 50 jatetxe onenen artean kokatu ditu Eneko Atxaren Azurmendi eta Bittor Arginzonizen Etxebarri. > 4

## UNDARRI BIKE

946 817 808 - www.undarribike.com  
Bidebarrieta, 5 behea - 48215 IURRETA

COLUER 24"  
Mendiko  
bizikleta  
315€



JAUNARTZEETARAKO  
OPARIRIK ONENA



%5eko  
DESKONTUA  
kupoia erakutsita  
UNDARRI  
BIKE

\*-maiatzaren 31ra arte-

### Durango > 3

DAZek kritikatu du udalak ez diela erantzunik ematen Alde Zaharrak dituen arazoei

### Iurreta > 8

Herriguneko aparkalekuak aldatzeko foroak egingo dituzte

### Durungaldea > 6

Ehunka lagunek bat egin dute Gure Esku Dago dinamikagaz

### Zornotza > 9

Saltoki handiei atek irekitzeko arriskuaz ohartarazi du Bilduk

# Herririk herri

## > DURANGO

### Oinezkoen, ziklisten eta auto gidarien arteko elkarbizitza sustatu gura dute

Mugikortasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat garatuko da datozen asteetan

#### > MARKEL ONAINDIA

Stop Accidentes elkarteak eta udalak sinatutako hitzarmen bati esker, mugikortasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat garatuko da datozen asteetan. Herrian joan-etorriak egiteko ohiturak aldatzen dabilta; gero eta gehiagok aukerazten dute bidegorritik bizikletan ibiltzea. Horregatik, erabilerak jasagarri hori bultzatzeaz gainera, trafiko arloko segurtasuna hobetu gura dute. Elkarbizitza berba egin du aurkezpenean Rosa María Trinidad Stop Accidentes elkarteak: "Oinezkoen, ziklisten eta gidarien arteko elkarbizitza sustatu gura dugu, Durango seguruago eta atseginago egiteko".

Kanpainaren jatorria Tokiko Agenda 21eko foroan dago, Aitziber Irigoras alkateak azaldu duenez. Mugikortasunaren inguruan beharrian bi zeudela ondorioztatu zen eztabaidetan. Bidegorria egitearen beharra eta sentsibilizazio kanpaina bat garatzearen beharra. Udalak aurtengo aurrekontuan sartu du kontzientziazio ekimena, PSE-EEren inizatibaz. Pozik agertu da Idoia Agorria sozialista: "Elkarrekin lan eginez, sinergiak aprobetxatzen dira".

Trinidadek azaldu du kanpaina. Bizikletariengan pentsatuta, eskuorriak kaleratuko dituzte, bidegorritik zelan ibili edota kaskoa eta txirrina zelan erabili azaltzeko. Bideo bat landu



Kanpaina bultzatu duten ordezkariak eta herritarrak, aurkezpenean.

dute Interneten zabaltzeko, eta zenbait lagun agertzen dira babesa ematen; Cristina Petite eta Jon Karro kirolariak eta Usue Martínez kantaria, adibidez. Informazio guztia [www.paisvasco.stopaccidentes.org](http://www.paisvasco.stopaccidentes.org) atarian dago.

Duranguesa txirrindulari elkarteak ere batu da kanpainara.

Durangesako Jokin Bilbaok esan du San Antonio-Santa Rita, Nevers eta Jesuitak ikastetxeetan berbaldiak eskainiko dituztela. Gainera, ekainaren 7rako irteera bat antolatuko dute bidegorritik zehar. Ekainaren 25ean amaituko dute egitaraua, hitzaldi batez.

### "Adinekoekin hiri atsegina" izateko pausoak ematen dihardu udalak

#### > JONE GUENETXEA

Durango Hiri Adeitsuen Nazioarteko Sareko kide da. Eki- men hori Osasunaren Mundu Erakundeak bultzatzen du. Udal arduradunek azaldu dutenez, "proiektu honek, hirietan adinekoen ikuspegia kontuan hartzen laguntzen du, adinekoekin adeitsuagoak izateko zer eta nola hobetu behar den identifikatzeko". Pertsona nagusiak protagonista dituen parte-hartze prozesu bat ipiniko dute martxan, eta diagnostiko fasearen garapenari ekin diote. Informazioa aztertu eta gero, txosten bat egingo dute, eta horrekin datozen urteetarako ekintza plana osatuko dute.

### Komunikazioari buruz berba egingo dute Plateruenean

#### > J.G.

Platerueneko *Zilarberritzen* prozesuaren barruan, azken tailerra egingo dute zapatuan, 10:00etatik 12:00etara antzokian bertan. Bertaratzen direnek komunikazioaren inguruko gogoeta egingo dute. Harremanak, elkarlana, komunikazioa, espazioa, lanketa, identitatea eta elkartegintza izango dituzte berbagai.

EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeko kideek dihardute Plateruena berridazteko gogoeta prozesua dinamizatzen. Aurten hamar urte beteko dira Berbaro elkartearen eskutik euskarazko kulturagintza sustatzeko antzokia sortu zutenetik, eta proiektua eraberritzeko beharra ikusi dute arduradunek. Hausnarketa hori herritarrekin batera ari dira egiten.

### Berbarok irudi berriagaz ospatuko du 25. urtemuga

Eider Alberdik diseinatutako marka berria ezagutzera eman dute Platerueneko aurkezpenean



Eider Eibar ilustrazioa margotzen.

#### > JONE GUENETXEA

Berbaro euskara elkarteak mende laurdena bete du aurten. Urtemugaren harira, elkartearen irudi berria aurkeztu zuten eguaztenean Plateruena Kafe Antzokian egindako aurkezpenean. Eider Alberdi diseinatzailerak sortu du aro berri honetarako irudia, eta marka ezagutarazi zieten bertaratutakoei. Era berean, Eider Eibar ilustratzaileak 25. urteurrenerako egindako marrazkia marraztu zuen. Gehizazpi taldearen musikak girotu zuen ekitaldia.

Maidar Uribe Berbaroko presidentek gogoan izan zituen 25 urte hauetan euskaraz bizitzeko urratsak emateko elkarteak urteotan izan dituen bidelagunak. "Pausoz pauso, zuotako askoren lanari esker, euskal komunitate sendoa eratu dugu Durangaldean". Tartean, *Anboto* asteka-

riaren sorrera eta Plateruena Kafe Antzokiaren sorrera ere gogora ekarri zituen.

Aurrera begira, euskararen aldeko mugimenduko beste eragile batzuekin elkarlanean aritzearen garrantzia azpimarratu zuen. "Euskalgintzako ki-deak alboan gura ditugu, egunez egun mundua euskaraz eraikitzen ari garenon arteko elkarlana ezinbestekoa da guretzat".

Maiatzaren 24rako egun osoko jaialdia antolatuko dute. Platerueneko bazkarira joateko txartelak salgai daude antzokian eta Berbaroren bulegoan.

M. Uribe: "Mundua euskaraz eraikitzen ari garenon elkarlana ezinbestekoa da guretzat"

#### Laguntzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-Iurreta (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko maiatzaren 9a, 12. urtea - 544. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi eta Aritz Palacin.  
**Zuzentzailea:** Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

# DAZek kritikatu du udalak ez diela erantzunik ematen Alde Zaharrak dituen arazoei

Auzokideen kezkei udalak apirilean idatziz emandako erantzunekin ez dituztela Alde Zaharreko arazoak konpontzen azaldu dute DAZeko kideek

## > MARKEL ONAINDIA

DAZ (Durangoko Alde Zaharra) elkarteak prentsaurrekoa eman du udalaren aurrean egin dituzten eskaerak azaltzeko. Karkabak, zarata, segurtasuna, zaborra, harlauzak... Auzokideen arabera, 2010ean eta 2012an udalagaz batzartu ziren, baina ez die kasurik egin. "Alboratuta sentitzen gara". Adostasunera ailegatzeko, lehenengo elkarrizketak egon behar duela esan dute auzokideek agerraldian. Aurtengo otsailean idatzi bat sartu zuten erantzunik jasotzeko, eta apirilean erantzun die udalak. Elkarteko ustez, idatzi horretan ez diete soluziorik eman.

Udalak, bere aldetik, auzokideei erantzuna emateko bidali zien gutuna publiko egin du, prentsara helarazita. Gobernu taldeak dioenez, DAZeko kideak, behar izan duten bakoitzean teknikariek batzartu dira, eta Hirigintza Batzordeetan politikariek berba egin dute elkarteko kideek. Gaineratu dutenez, "udalak lanean dihardu eta horrela jarraituko du herriko gune enblematiko honetan".

## DAZen kezak

Alde Zaharrean hainbat arazo daudela adierazi dute DAZeko kideek. Besteak beste, eraikin gehienak zaharrak direnez, igo-

gailurik ez dagoela, eta, auzokide asko zaharrak izanda, arazo larria dela uste dute. Horregatik, beharrezko ikusten dute igogailuak ezartzeko azterketa eta araudi bat. Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia zelan dagoen galdetu dute. Udalak idatziz adierazi die badaudela igogailuak ipintzeko laguntzak, baina auzokideen berbetan, bizilagun batzuek obra egiteko karkaba erabili ahal izatea eskatu dutenean ez diete utzi.

Karkabak ere badira DAZeko kezka iturri. Azken urteetan bat konpondu dute osorik -Artekale eta Goienkale artekoa-, eta beste baten zati bat ere bai. Zikinkeriaz gainera, suteekin daude batez ere arduratuta. Gogoratu dute duela urte batzuk suteak egon zirela,

Udalak dioenez, DAZeko kideak, behar izan duten bakoitzean, udaleko teknikariek egon dira

eta iaz Bermeon gertatutakoak askoz gehiago beldurtu dituztela. Horregaz lotuta, ebakuazio plan bat behar dela diote auzokideek.

Zaratari dagokionez, udalak auzokideei esan die zaraten

mapa egiteko dagoela, baina DAZeko arabera, azterketa hori eginda dago; 2008an egin ei zen Agenda 21etik bultzatuta. "Borondate politikoa falta izan da neurri zuzentzaileak aplikatzeko". Zarata horien artean, terrazak batzean sortzen dena ere badago. Kritikatu dute terrazek leku handia hartzen dutela: "Batzuk tabernak baino handiagoak dira". Udalak erantzun die ordenantzaren arabera lekuak eta ordutegiak mugatuta daudela.

Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak, aurrera begira, lan eredia aldatu gura du. Ekainean batzar zabala egin gura dute bizilagunekin, zuzeneko tratua eduki eta informazioa emateko.



DAZeko Agurtzane Irigoras eta Jose Mari Arrillaga, prentsaurrekoan.

## > OTXANDIO

### Herrigintza tailerra egingo dute, herritarren ideiak batzeko

#### > JOSEBA DERTEANO

Herri-ola egitasmoaren barruan herrigintza tailerra egingo dute bihar, 9:00etan, Mainondoko gimnasioan. Parte-hartzaileek herriaren etorkizuneko hainbat arlori buruzko iritzia emango dute bertan; besteak beste, kirolari, energia baliabideei, elikadurari, hondakinen kudeaketari, hezkuntzari eta nagusien zaintzari buruzkoa. *Espazio ezaguna* lez ezagutzen den teknika erabiliko dute. Teknika horren bidez, batutakoak taldeka banatu eta gai askori buruzko eztaiadak abiatuko dituzte. Denbora jakin bat igarotakoan, parte-hartzaileak talde batetik bestera mugituko dira, euren ekarpenak arloka eginez. Hizkuntza ez da arazo izango, itzultzaile boluntarioak egongo direlako euskaraz ondo ez dabil-tzanentzat.

## > MALLABIA

### Satxibu aisialdi taldeak udako ludoteka antolatuko du

#### > JONE GUENETXEA

Mallabiko ume eta gazteek udako ludotekan gozatzeko aukera izango dute ekainaren 30etik uztailaren 18ra. Herriko Satxibu aisialdi taldeak antolatuko ditu aurten udalekuak. Goizez izango dira, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:00etara. 4 eta 14 urte arteko umeek eta gazteek hartu ahal dute parte. Seme alaba batek izena emanez gero, 60 euro ordaindu beharko da. Bi seme-alabek ematen badute izena, berriz, 80 euro. Herrikoak ez diren ume eta gazteen kuota 100 eurokoa da, ume batek ematen badu izena, eta 120 eurokoa seme-alaba bik izena emanez gero. Horretarako epea ekainaren 3ra arte izango da. Zenbat umek parte hartuko duten dakitenean, Satxibuko arduradunek batzarra egingo dute gurasoekin.

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

**Enpresatik gertu-gertu egonda, beti dago lana aurkitzeko aukera gehiago.**

Leire Murillo,  
Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza, 2. maila.



**PREST**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**  
ARRASATE · MAIATZAK 10  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**DONOSTIALDEA · MAIATZAK 17**  
Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**  
OÑATI · MAIATZAK 10  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · MAIATZAK 17**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
ESKORRIATZA · MAIATZAK 10  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETAK · MAIATZAK 10**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center**  
DONOSTIA · MAIATZAK 24  
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



**> DURANGALDEA**

## Atxa eta Arginzoniz munduko 50 sukaldari onenen artean



Zazpigarrenez segidan izendatu dute onenen artean Bittor Arginzoniz.

*Restaurant* aldizkariak egiten duen jatetxe onenen zerrendan daude Durangaldeko Eneko Atxa eta Bittor Arginzoniz sukaldarien jatetxeak. Atxa zornotzarraren Azurmendi

jatetxeak 26. postua lortu du eta Bittor Arginzonizen Axpeko Etxebarri jatetxeak 34. lekua. Axpeko Etxebarri zazpigarren urtea du munduko jatetxerik onenen zerrendan.

Iaz 44. postuan sartu zen, eta aurten hamar postu lehenago ipini dute. Atxaren Larrabetzu-ko jatetxea lehenengoz sartu da zerrendan, eta zerrendaren erdialdean sartu ere, 26. tokian.

## “Euskal Herrian tradizioa da parrilan egitea, primitiboa da”

Txingarragaz lan eginda, tradizioa eguneratu du Bittor Arginzonizek (Atxondo, 1960)

### > MARKEL ONAINDIA Zelan jaso duzu saria?

2008tik hona urtero irabazi dut saria. Mundu mailan zabalpen handia dauka, eta horrek atzeritar asko ekartzen du.

### Zergatik uste duzu eman ditzutela?

Argi daukadana da ez dudala lan egiten sariak lortzeko, edo zerrendaren batean agertzeko. Garrantzitsuena da nik sinisten dudana egiten dudana, eta saririk onena bezeroak gus-

tura egotea da. Beharbada, izan ahal da sukaldaritzaren desberdina delako: dena da txingarragaz egina. Garrantzia duena protagonista da, produktua bera. Parrilak daukana hori da; produktua ona ez bada, alferrik zabil-tza. Ez du miraririk egiten.

### Zergatik teknika hori?

Hemen, Euskal Herrian, tradizio bat da parrilan egitea, primitiboa da. Hori da txikitatik ezagutu dudana, eta gehien gustatzen zaidana ere bai. Txikia

nintzanean, etxean ez zegoen ez argindarrik, ez butanorik: sortzen ziren usain haiek, egurra, janariaren zaporea... Uste dut hortik datorrela nire zaletasuna. Garrantzitsuena da norberari gustatzea prestatzen duena, sinesten duena eskaintzea. Naturala da, garbia eta produktu mailan gehien baloratzen duzuna. Kontzeptuak ere garrantzia dauka; nik eguneratu egin dut pixka bat ahaztuta egon den parrilaren mundua. Goi mailako sukaldariko balio dezakeela erakutsi dut.

### 24 urte daroazuz Etxebarrin.

Jatetxea prestatu nuen negozio lez eroateko. Hasieran, legatza, bisigua eta txuleta egiten nituen parrilan, baina duela hamazazpi bat urte esan nuen: Zergatik ez probatu beste produktu batzuk ere? Hor hasi zen nire iraultza.

## “Garrantzitsuena bezeroak disfrutatzea eta pozik egotea da”

Eneko Atxak (Zornotza, 1977) hiru Michelin izar ditu, eta jatetxea zabaldu du Thailandian

### Zelan hartu duzue saria?

Pozik gaude, baina lasaitasunez eta zuhurtziaz jaso dugu. Sariak beti dira gustagarriak, baina guretzat garrantzitsuena gure egunerokoan beharrez jardutea da.

### Zer uste duzu dagoela lorpen horren atzean?

Talde lan ikaragarria dago sari horren atzean, egunetik egunera hobetzeko grina. Mundu osoko bezeroak jasotzeak ere ate berri bat ireki digu. Mundura zabaltzeko atea.

### Jatetxe jasagarrienaren saria ere lortu duzue.

Horrek poztasun berezia eman digu. Gure eraikina ahalik eta jasagarriena da. Adibidez, geotermia eta panel fotovoltaikoak ditugu energia lortzeko; euri ura birziklatzen dugu komunarako eta ureztatze lanetarako; eta material birziklatuak ditugu eraikinetarako. Bestalde, ia desagertzeaz zeuden hainbat barazki hazi berreskuratu ditugu.

### Sukaldariak ikertzaitetik eta artistatik ere badauka?

Ni sukaldaria naiz. Gure euskal tradizioan eta errezetetan oinarritutako sukaldaritzari puntu moderno bat ipintzen diot. Egia da ikerketa handia dagoela gure lanaren atzean, eta batzuentzat arte puntu bat ere badaukala.

### Zelan zaletu zara sukaldaritzara?

Etxean ama eta amama beti sukaldetan sartuta ikusten nituen. Etxeko gertakizun eta ospakizun guztiak sukaldako mahaia- inguruan izaten ziren. Eta oroitzapen bikain haiekin lotu izan dut beti sukaldaritzara.

### Zer sentsazio edukitzen duzu suaren aurrean jartzean? Zer sentitzen duzu?

Suaren aurrean munduko maitasun handienarekin kozinatzen dut beti gure bezeroentzat. Guretzat garrantzitsuena gure bezeroak dira, beraiek disfrutatzea eta pozik egotea.



Aziemendi izena jarri dio Atxak Phuketen (Thailandia) zabaldu berri duen jatetxeari.

**m o m o t x o**  
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12  
48200 Durango  
Tel.: 946 811 006

**MAPFRE**

Jabier Oruna - Idoia Izurieta  
**Bulego berria Berrizen!**

Geltoki kalea, 9 · Berriz 48240 · 94 498 41 90 · forunaa@mapfre.com



*Gorputz desberdina, baina bihotz berbera.*



## FORD FOCUS

### > EcoBoost motorra

Formula Ford auto bat gidatzearen sentsazioa.

Auto bi hauek antzekotasun asko dituzte: EcoBoost 1.0 l motorra. Zuzeneko injekziodun hiru zilindroko gasolina motorra, banaketa aldakorra eta turbokonpresorea. Kirol-automobilak menderatzeko gai Nürburgring zirkuituan, 5,1 litro bakarrik kontsumituta 100 kilometroan. EcoBoost motorra. Gasolina auto baten potentzia eta diesel baten eraginkortasuna. Informazio gehiago 'ford.es' webgunean.

**12.990€**

[www.fordkondia.com](http://www.fordkondia.com)



ford.es

## FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650

## ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 944 815 135

## BERRIA



### FORD KA

#### > Auto-Start-Stop sistemarekin

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea.

Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako.

Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.

**5.990€**



**Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?**

**> DURANGALDEA**

## Ehunka lagunek bat egin dute Gure Esku Dagogaz

Giza katerako metro sinbolikoak dabilta saltzen

**> MARKEL ONAINDIA**

Gure Esku Dago ekimena herritarren babesa jasotzen dabil egunik egun. Erabakitzeke eskubidearen alde ekainaren 8an Durangotik Iruñera helduko den giza katerako milaka lagun behar dituzte, eta Durangaldean ehunka herritarrek hartu dute lekua. Herririk herri saltzen dabilta giza katean parte hartzeko beharrezkoa den metroa.

Durango, joan zen astean Plateruena txiki geratu zen aurkezpenean. Badira aste batzuk salmenta abiaturik zutela, eta dagoeneko 650 lagunek eman dute izena. Hurrengo asteetan ere metroa erosteko aukera emango dute -5 euroan-. Eguenetan eta barikuetan, 19:00etan, Goienkalan eta Andra Marin egongo dira; zapatuetan 12:00etan leku

berean; eta domeketan auzoetan ipiniko dute mahaia, 12:00etan.

Elorrion ere joan zen astean aurkeztu zuten dinamika, eta 300dik gora herritarrek eman dute izena. Metroen eta kamiseten salmenta barikuetan egingo dute, plazan, 18:30etik 20:30era. Gainera, maiatzaren 23an herri mailako giza katea egingo dute.

Zornotzarrek Bizkargiko jaira eroan zuten aldarrikapena domekan. Salmenta domekero egingo dute, 12:00etatik 14:00etara Politena tabernaren aurrean.

Otxandion 120 bat metro saldu dituzte. Gaur mahaia ipiniko dute 19:00etatik 21:00etara, eta hilaren 17an eta 25ean ere bai, 13:00etatik 15:00etara.

Zaldibarren, bestalde, gaur aurkeztuko dute dinamika, 19:30ean, udaletxe parean.



Durango, Plateruenean egin zuten aurkezpena.



Elorrion, plazan, irudia osatuta.



Zornotzarrak Bizkargi mendian, domekan.



Otxandion, eskuak altxatuta dauzkatela.

**> IZURTZA**

## Giza katerako metroak erosi ahalko dira etzi

Ekainaren 8rako metroak salduko dituzte domekan, 12:00etatik 14:00etara, herriko plazan

**> JOSEBA DERTEANO**

Gure Esku Dago taldea martxan dago Izurtzan eta domeka honetan egingo dute lehen ekimena herrian. Giza katean parte hartzeko metroak eskuratu ahalko dira domeka honetan, Izurtzan; herriguneko plazan postu bat ipiniko dute 12:00etatik 14:00 ingurura arte. Metroan eskuratzeko gainera, dinamikaren aldeko kamisetak ere eskuragarri egongo direla adierazi dute (hainbat diseinu eta koloretan),

eta bertaratzen diren herritarrek izan dezaketen edozein zalantza argitzen ere saiaturiko dira.

Izurtzako herritarrek hirugarren kilometroan parte hartuko dute giza katean. Kilometro hori Abadiñon dago. Abadiñoko giza kateko lau kilometro ditu eta horietako lehenengoa Izurtzako, Abadiñoko, Garaiko, Iurretako, Mañariko eta Atxondoko herritarrekin osatuko dutela azaldu dute arduradunek.

**> MAÑARIA**

## Saharaz berba eginez hasiko da Aste Kulturala

Astelehenean hasiko da egitaraua, 19:00etan

**> M.O.**

Mañariko Aste Kulturala astelehenean hasiko da Sahararen inguruko berbaldi batez. 19:00etan izango da udaletxe aretoan, eta Garazi Etxebarria ibiliko da hizlari. Aste osoa ekintzaz hornituko duen egitarau baten hasiera izango da.

Martitzenean, 19:00etan, *Big Mountain Biking* bideoa ikusiko dute. Eguaztenean, ordu

berean, liburutegi zaharraren erabilera aztertuko dute. Eguenean hurrengo tailerrak eskainiko dituzte plazan, eta barikuan bertso afaria egingo dute Herriko Tabernan Anjel Mari Peñagarikanogaz eta Beñat Gaztelumendigaz. 15 euroan eskuratu ahal da txartela tabernetan. Udaberriko kontzertuekin eta domekako feriaz amaituko da Aste Kulturala.

**> ABADIÑO**

## Udaleko zenbait lanposturi erabateko disponibilitatea eskaintzea onartu dute

Joan zen astean aho batez onartu zuten udaleko lanpostuen zerrendan aldaketa horiek egitea

**> ITSASO ESTEBAN**

Udalean ordezkariak daukaten hiru alderdiek urte hasieran aho batez onartu zuten udaleko langileen zerrendako zenbait lanposturen balorazioan aldaketak egitea adostu dute Abadiñoko Independentek, Bilduk eta EAJk. José Luis Navarro alkateak azaldu zuenez, joan zen martitzeneko udalbatzarreko aldaketa horrekin, Euskara, Kultura eta Berdintasun arloetako teknikarien, Udaltzaingoko buruaren eta mendiko teknikarien soldatei gehikuntza osagarria egingo die Abadiñoko Udalak: %5eko igoera osagarria onartu dute Euskara Arloko teknikari lanpostuarentzat, eta %10ekoa Kultura eta Berdintasun arloetako teknikari eta udaltzainburu lanpostuentzat.

Navarro: "Aldaketagaz udaleko arloen funtzionamendu egokia bermatzea da helburua"

Aldaketagaz udaleko arloen funtzionamendu egokia bermatzea dela helburua azpimarratu zuen alkateak. Azaldu zuenez, langileen eskaria izan da lanpos-

tu horiei erabateko disponibilitateak dakartzan lan baldintzak onartzea: "Udaleko langileen zerrenda onartu genuenean, langileek asanbladan adostu zuten lanpostu bati ere ez esleitzea erabateko ardura, baina eguneroko jardunean ohartu dira euren lana behar bezala egiteko erabateko arduragaz jardun behar dutela".

Euskara, Berdintasun eta Kultura arloko teknikarien soldatei gehikuntza osagarria onartu diete

Bilduko Aitor Azuetak azpimarratu zuenez, "euren lanaldietatik kanpo aritu dira langile horiek, eta balorazioa egin zenean ez zen hori kontuan hartu. Ados gaude teknikarien lanorduetatik kanpo udaleko arloa hankamotz geratu ez dadin langile horiei disponibilitate maila altuagoa onartzeaz".

Eneko Etxebarria jeltzaleak ere EAJ ados dagoela adierazi zuen: "Oso garrantzitsua da gauza hauek arautzea; izan ere, udalak eman behar dituen zerbitzuak egokiak izatea geure ardura da".

## Santrokazak ospatuko dituzte astelehenean aurrera Zelaietan

**> I.E.**

Egitarau oparoa prestatu du santrokazetako Jai Batzordeak, eta askotariko ekitaldiak izango dira, Zelaietako jaietan, datozen egunetan. Astelehenean, 21:00etan, hasiko dituzte jaiak: Gerbas jaietako ikurraren kalejira egingo dute txistulariek lagunduta, eta dantzarien emanaldia izango da gero.

Eguenean, maiatzaren 15ean, ekingo diote asteburuari begira prestatutako egitarauari, maiatzaren 15a delako San Trokaz eguna. Ohiturari jarraituta, meza nagusia eta ezpata dantzarien eta irlanderen dantzaldia izango dira, San Trokaz plazan. Arratsaldean, 18:00etan, eskuz binakako San Trokaz Sariko finalaurrekoak jokatuko dituzte, eta Mariachi Dominguez taldeak erromeria eskainiko du Txanporta plazan.

Bestalde, herriko Et@rte taldearen *7 aulki* obrak eta Debote Enbote taldearen familia osoarentzako *Vademekun* ikuskitzuzunaz gozatzeko aukera izango da maiatzaren 16an; 17:30ean, Ferialeku plazan izango da Debote Enboteren emanaldia, eta, 22:00etan, probalekuan Abadiñoko antzerkigile gazteena. Egun horretan jokatu da, gainera, San Trokaz Paleta Txapelketako finala ere.

Hurrengo asteburu bietarako ere egitarau zabala prestatu du Jai Batzordeak.

**> ELORRIO**

## Ibarrako zubiaren obra berriro aterako dute lehiaketa publikora

Forma akats bategatik eten dute adjudikazio fasea

**> MARKEL ONAINDIA**

Udalak apirilean onartu zuen Ibarra eta San Pio arteko zubiaren obra lehiaketa publikora ateratzea. Aurtengo obra garrantzitsuenetakoa izango denaren adjudikazio fasea hasita zegoen, baina forma akats baten ondorioz eten egin behar izan dute. Proiektuak enpresentzat zeukan sailkapenaren kontra egin zuen Ascovi kontratisten

elkartek idatzi bat aurkeztuta. Honela azaldu du Joseba Mujika alkateordeak: "Arazoa izan da behar baino azpitalde gehiago jarri ditugula. Legeak dio lau baino gehiago jarri ahal dituzula salbuespenak daudenean kontratu berezietan".

Asteleheneko udalbatzarrean onartu zuten fase berria hastea. Baina berriro ere ez ziren ados ipini alderdi nagusiak.

Bildu abstenitu egin zen, baina adierazi duenez, ez dago proiektuaren kontra. EAJren gestioa kritikatu du Idoia Buruagak. Azaldu du akatsaz konturatu zirela eta jeltzaleek ez zietela kasurik egin. "Proiektua ondo egitea baino, lehenago zeinek egin baloratzen zuten". Enpresa txiki asko aukera barik uzten zirela ere esan du. Horrez gainera, ikuspegi elektoralagatik presaka ibiltzea leporatu die EAJko kideei. "Proiektua 2012an onartu zen, eta orain arte ez dute ezer egin. Igerilekuekin itsututa egon dira". Atzerapenagaz, Aurrekontu Oreka Legea arriskuan ipintzea ere egotzi die.

Mujikak ez dio hainbesteko garrantzirik eman gaiari, eta interes elektoralak ukatu du. Bere esanetan, proiektua aurten amaituko da eta ez da desegonkortasunik sortuko. Inbertsio hori potoloa denez -1.164.000 euro-, 2014an ez dutela egonkortasunik edukiko dio, maileguak eskatu dituzte eta. Baina Aldundiak plan finantzario bat ezarri diela eta apirilean onartu zela esan du. Horren arabera, egonkortasuna 2015ean berreskuratuko dute. Bilduren kritikei indarra kendu gura izan die Mujikak: "Eztabaida faltsua da. Egonkortasuna plan horretan jasota dago, eta udala egoera onean dago".

**> BERRIZ**

## Zapatuan da Iremiñeren 45. urtemugarako lehen batzarra

**> A.U.**

Berrizko Iremiñe dantza taldeak 45. urteurrena ospatuko du aurten. Ekainaren 22an egingo dute ospakizuna eta dantza taldean ibilitako adin guztietako berriztarrek batu gura dituzte elkarrekin dantza egiteko. Bihar, 16:00etan, euren lokalean egingo dute lehenengo batzarra taldeak antolatzen hasi eta entseguak egiten hasteko.

Dantza taldetik batzarrerako deialdi zabala egin dute, eta berriztarrei eskatu diete eurekin dantza egindako jendeari abisatu diezaiotela, lehenago herrian bizi eta orain kanpoan direnak ere jakitun egiteko. Argibideetarako [iremine69@gmail.com](mailto:iremine69@gmail.com) helbidea ipini dute eskura.

**San Juan jaietan lehen aldiz** Iremiñe lehen dantza emanaldia 1969ko sanjuanetan egin zuen, San Juan ermita ondoan. Orduetik hona ehunka dantzari igaro dira taldetik. 25. urtemugan aurtengoaren antzeko jaiak egin zuten, eta taldearen historia liburu baten batu zuten.

**> ATXONDO**

## Azoka, bertso saioa eta kontzertuak Berpizte Egunean

**> J.D.**

Atxondoko gaztetxeak ekitaldiz beteriko II. Berpizte Eguna antolatuko du zapatuak. 11:00etatik aurrera nekazaritza eta artisauntza produktuekin -sagardoa eta landareak eskainiko dituzte, adibidez- osatutako azoka alternatiboa atonduko dute plazan. 14:00etan bertso bazkarira batuko dira Fredi Paia, Aitor Bizkarra eta Gorka Lazkanorekin. 18:00etatik aurrera, ostera, elektrotarangagaz herri osora irekiko dute jai giroa eta, ondoren, JJ Gas erakustaldiagaz gozatu ahalgo da. Azkenik, 22:30ean, Kruders, Txabolakumeak eta Zirkinik Bez musika taldeek jardungo dute gaztetxean.

**Hitzaldia eskolan**

Maiatzaren 15erako, 14:30ean, euskaraz ez dakiten gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu du gurasoen elkarteak. Iñaki Eizmendi hizkuntzalaria izango da hizlaria. Guraso erdaldunek euskararen arloan seme-alabei zelan lagundu ahal dieten azalduko du Eizmendik.



Ibarra auzoa eta gasolindegia lotuko ditu zubi berriak.

**ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI**

**BAI**

**EKITALDI POLITIKOA**

**HIZLARIAK: Niko Moreno eta Dani Maeztu**

**MAIATZAK 21 Asteazkena**

**DURANGO**

**Ezkurdin 19:00etan**

**EMAN BOTOA** **ehbildu**  
herrikerabaki

**IURRETA**

# Iurretarek erdigunean aparkatzeko aldaketak mahai gainean

Tellituko aparkalekua, esaterako, herritarrentzat gordeko lukete; iritziak jasoko dituzte bi forotan

**> AMAIA UGALDE**

Herrigunean aldaketa batzuk egiteko asmoa agertu du Iurretako Udalak, mugikortasun azterketa batetik abiatuta. Bertakoentzat gordetako aparkalekuak sortzea eta Askondo kaleko zati bat trafikora ixtea daude proposamenen artean. Proposamena irekia da, eta maiatzaren 14an eta 27an foroak egingo dituzte, herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan hasiko dira bi foroak.

**Iurretarrantzat lekuak**

“Daukagun espazio mugatuan Iurretatik kanpoko jende askok

uzten du kotxea, eta Iurretarek lehentasuna izatea gura dugu”, azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak. Tellituko aparkalekua, esaterako, beti egoten da beteta, eta mugikortasun azterketan ikusi dutenez, egunez, hamar autotik sei Iurretatik kanpokoak izaten dira. Aparkaleku hori herritarrentzat bakarrik izatea planteatu dute proposamenen artean. Erdigunean bizi diren iurretarek txartel bat atera beharko lukete, eta Tellitukoaz gainera, Zubiaurren eta Bidebarrietan ere gordeko lirateke herritarrentzako aparkalekuak.

Azterketaren arabera, herri barruko trafiko asko aparkale-



Askondo autoentzat ixtea planteatu dute, laburbide moduan erabiltzen delako.

ku bila dabilen jendeak sortzen du. Erosketak eta tramiteak egitera datoz, eta 45 plaza atonduko dituzte eurentzat Askondon eta Bidebarrietan, udal bulegoetatik Correoserako tartean, gehienez ordu eta erdi uzteko. Parkimetro bat egongo litzateke tiketak hartzeko, eta aparkatzea doakoa izango litzateke.

**Iurreta, laburbide**

Jende askok Iurretako herrigunea errepide nagusira joateko laburbide moduan erabiltzen du. Askondo kaletik Bidebarrietara doazen autoen %85 ez dira Iurretatik abiatzen. Egoera hori gainditzeko, zati hori autoentzat zarratzea eta oinezkoentzat jarritzea planteatu dute.

## Duela 60 urteko autoa ardatz, kotxe elektrikoa

Iurretako institutuko 1. mailako ikasleek egin dute

**> A.U.**

Maiatzaren 15etik 18ra Rotterdamen (Herbehereak) izango dira Iurretako institutuko hainbat ikasle, Shell enpresak antolatzen duen ekolasterketan. Probarako kotxe elektrikoa egiteko, 1953an Doñiturri y Estancona lantegian egin zuten *Estancona* autoaren modeloa hartu dute ardatz. Auto horrek ez zuen seriean fabrikatzeko lizentziarik lortu, baina lortu izan balu, esta-

tu mailan fabrikatu eta merkaturatutako lehen kotxea izango litzateke.

Rotterdameko proban, zirkuituari ahalik eta buelta gehien eman behar diote, ahalik eta energia gutxien kontsumituta. *Urkiola* izena ipini diote autoari ikasleek. Lehenengo mailakoak dira eta ziklo bat baino gehiagotako ikasleek elkarlanean osatu dute proiektua, denbora eta ilusio asko jarrita.



Martitzenean egin zuten autoaren aurkezpena prentsaren aurrean.

## Idazkari albokoaren lanpostua kendu dute udalean

**> A.U.**

Osoko bilkuran aho batez erabaki dute idazkari albokoaren postua kentzea. Bilduk eta PSE-EEK, postua beharrezkoa ez zela iritzita, urteetan egin duten eskaria da hori. Orain hutsik dago idazkari ondokoaren postua, lekualdaketa eskatu delako. Une hau “planteamendua aztertzeke egokia” dela ikusi du gobernu taldeak.

EAJren ustez, plaza hori beharrezkoa izan da: “Zoritzarrez, bajak izan dira tartean, eta idazkaria eta idazkari ondokoa urtebete eta erdi baino ez dira ibili batera, baina tarte horretan asko aurreratu zen udaleko funtzionamenduan”. Bilduk ez dauka argi hori: “Ia funtzio berberak eduki dituzte, bikoizketa bat egon da lanpostuan”. Alkateak gezurtatu egin du hori, eta gaineratu du administrazio teknikari baten beharra dagoela.

**> ZALDIBAR**

## Ahotsak ekimeneko parte hartzaileak eskertuko dituzte

**> I.E.**

Martitzenean, maiatzaren 13an, udaletxean egingo dute Ahotsak ekimenak Zaldibarren emandako fruituak aurkezteko ekitaldia: 18:00etan hasiko da aurkezpena. Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea eta hedatzea du helburu Ahotsak ekimenak; hainbat herritako adineko jendea elkarriketatu dute, datu horiek biltzeko.

Zaldibarren iaz egin zituzten ekimenaren barruko grabazioak, eta 80 urtetik gorako hamahiru herritarren testigantzak jaso zituzten. Lekukotasun horiekin egindako bideoak [www.ahotsak.com/zaldibar](http://www.ahotsak.com/zaldibar) webgunean daude ikusgai. Testigantzak eskaini dituztenei eskerrak emateko antolatu dute martitzeneko ekitaldia.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

GOIZTIDI  
DIAZ

EAJ

**Sasi guztien gainetik!**

Sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik! Halan dino gure mitolojiaren elezahar esanguratsuak. Azken urteetan, gure uria ez da krisiaren lainoek sortutako astinduratik kanpo geratu. Baina garai latzei aurre egiteko bi modu dagoz: zentzunez edo zentzugabekeriak. Zentzuna da, hain zuzen ere, EAJko gobernu taldeak jarraitzen dauden bidea. Seriotasunez, eta zentzunez, halan da gobernu taldeak lan egiteko daukan jarrera. Eta lan eginda, EAJko gobernu taldeak udalean 1,8 milioi euro inguruko erremantea izatea lortu dau, eta hori gauzak zentzunez egitearen ondorioa da. EAJk erakundeen kudeaketa seriotasunez egiteko konpromisoa izan dau batzuentzat heldu barria den demokraziaren urte guzti honeetan, bai udaletan, bai aldundietan, bai Eusko Jaurlaritzan. Eta noski, Europan ere bai! Oso erraza da erantzukizunik ez izatearen aterkipean eserita aldarrikapen populistak egitea. Udala zorretan sartzearen truke proposamen zeharo populistak egitea. Badirudi batzuk prest dagozela bidean sasiak baino ez jartzera. Eta halan, zentzugabekeriaren bidea hartuta dabenekin gaitza da akordioetara edo adostasunera heltzea. Borondate eza leporatzen deuskue ezker abertzaletik, borondate eza euren hitza betetzen ez dabenek? Honen inguruan badauka elezahar polit bat hain aberatsa den nire hizkuntza maiteak: gure katuak buztana luze, nork berak bezala besteak uste. EAJk zentzunez kudeatzen dau, norberak norbere etxean egingo leukeen bezala. Galdera erraza da, nori itziko zeunskio zure diru poltsa, zentzugabekeriak edo zentzunez jokatzeko dauenari? EAJk lanari ekingo dotse, sasi guztien gainetik!

## Aparkaleku eta trafikoaren baretze proposamen berriak

Zure partehartzeak martxan jartzen gaitu



IURRETAKO HERRITARREN PARTAIDETZA FOROAK:

Tokia: Ibarretxe Kultur Etxea.

1. Foroa:

Maiatzak 14, 19:00etan.

2. Foroa:

Maiatzak 27, 19:00etan.

Zatoz eta parte hartu!  
Zure iritzia ezagutu nahi dugu!

Informazio gehiago: [www.iurreta.net](http://www.iurreta.net)





**> ZORNOTZA**

## Komertzio handiei atea irekitzearen arriskuez ohartarazi du EH Bilduk

Herritarrak galdezka dabiltzala-eta, Bilduk azalera handiko komertzioei buruzko jarrera jakinarazi du



Ziortza Makazaga eta Urko Lopez zinegotziak eguazteneko prentsaurrekoan.

**> JOSEBA DERTEANO**

Eroskik Zornotzan azalera handiko komertzio bat irekitzeko interesa erakutsi du. Arau subsidiarioek 600 metro karradura mugatzen dute merkataritza erabilerarako eraikinen tamaina. EH Bilduk adierazi duenez, EAJk eta PSEk Hirigintza Batzordeetan arauak aldatzeko "prestutasuna" erakutsi dute, hedadura handiagoetako eraikinak ahalbidetzeko. Horrelako

aldaketa batek ekarri ditzakeen arriskuez ohartazi zuten eguaztenean egindako herri batzar informatiboan.

Gaia udalbatzar batean irten zen. Apurka herritarrak kalean galdezka hasi zaizkiela adierazi zuen Urko Lopez zinegotziak, eta, horregatik, euren jarrera argitu gura izan dute. Gaur egun Lidl supermerkatua dagoen bidearen beste aldean joango litzateke Eroskiren eraikina.

## Materia organikoa batzeko edukiontzia ipini dituzte

Guztira 39 edukiontzi daude herrigunean banatuta

**> J.D.**

Herrigune osoa materia organikoa jasotzeko edukiontziz hornitzeko Ongi Etorri egitasmoa bost fasetan gauzatu du udalak iazko urritik hona. Azken fase honetan bederatzi edukiontzi ipini dituzte erdigunean. Honako hauek dira edukiontzien kokapenak: Harrison kalea, Luis Urrengoetxea 8, Karmen 23, Konbenio 7, San Miguel 9, Txiki Otaegi 4, Gudari 7, Ibaizabal 1 eta Nafarroa 5. Guztira 39 edukiontzi daude herrigune osoan.

Beraz, materia organikoa birziklatu gura duten erdigune-

ko bizilagunek herriko plazan, udal bulego teknikoaren eraikinean dagoen Informazio Bulegoan, bete behar dute eskaera orria: astelehenetan (09:30-13:30 eta 15:30-17:30) edo ostegunetan (09:30-13:30). Herritarrek materia organikoa egoki bereizten ikas dezaten saio informatiboak egingo dituzte Zelaieta zentroan, maiatzaren 9an eta 30ean. Informazio puntu ibiltariak ere egingo dira maiatzaren 23an (16:00-20:00) eta ekainaren 7an (10:30-13:30) Zelaieta parkean. Apirilean 7.430 kilo materia organiko batu zituzten.

**> GARAI**

## Landetxea zabalduko dute Aboiz baserrian

Landetxean ostalaritza zerbitzua eskainiko dute

**> MARKEL ONAINDIA**

Garaiko Aboiz baserrian landetxea zabalduko dute, eta ardura-dunek azaldu dutenez, obraren azkenengo fasean murgilduta daude. Lo egiteko lekuaz gai-

nera, ostalaritza zerbitzua ere eskainiko dute. Lehenago zoota zegoen eremuan kokatuta dago Aboiz baserria.

Lehenengo eta behin, jate-txea zabalduko dute. Izan ere,

Koalizioari kezka eragiten dio arau subsidiarioen balizko aldaketak arrazoi birengatik: herriko merkataritza-gune txikiak kaltetu ditzakeelako eta arauak berrizteko herritarrez eta eragileez osatutako kontseilua geldidagoelako.

Arauak aldatuz gero, denentzat aldatu behar dira. Behin ate hori irekita, eta bere koka-penagatik Zornotza leku estratagikoan dagoenez, sektore askotako enpresa handiak etorri daitezkeela ohartarazi dute, eta horrek "kaltea eragin diezaiekela" komertzio txikiari. Basauri erabili zuten adibide moduan: "Azalera handiko zentroak direla eta, komertzioek eta ostalaritzak nabarmen egin dute behera". EH Bildu "ez dago herrira etorri nahi duten enpresen kontra, baina arriskutsu ikusten ditu horrelako aldaketak egitea arauan".

Prozedurari dagokionez, Herri Antolamendurako Plan Orokorra iraungita dago 2011z geroztik. Plan berria egituratzen laguntzeko sortutako Aholkulari Batzordea (herritarrak eta eragile sozialak barnean dituena), aldiz, "behin bakarrik batu da", eta bertan erabaki beharko lirateke arau subsidiarioen aldaketak. EH Bilduk kontseilua biziberritzea eskatzen du, bere lana egiten uztea eta ondoren hartzea hartu beharreko erabakiak.

## Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute domekan

**> J.D.**

Udabarri Euskal Dantzari Taldeak Zornotzako II. Umeen Dantzari Eguna antolatuko du domekan. Jaialdiak 300 gaztetxo inguru batuko ditu. 11:00etan ongietorria egingo diete dantzari Zelaieta parkean, eta 12:00etan kalejiran ibiliko dira herriko kaleetan zehar. Ondoren, 14:00etan, denek elkarrekin bazkalduko dute herriko plazan, eta, 17:30ean, ekitaldia eskainiko dute. Udabarrigaz batera, Andra Mari, Besaide, Elai Alai, Iluntze, Iremiñe, San Lorentzo, Talde Batuak, Tronperri, Txoritxu Alai eta Txindurri taldeetako dantzariak batuko dira.

lanak eremu horretan doaz arreraturata. Zerbitzu hori ekainerako prest egotea espero dute arduradunek.

Landetxea, zazpi gelakoa, arrerago egongo da erabilgarri, jate-txea zabaldu ostean.

Lehenago zoota zegoen eremuan kokatuta dago Aboiz baserria

**> DURANGALDEA ASTEON**

## Frackingaren inguruko hitzaldiak Durangon eta Zaldibarren

**HITZALDIA** > Maiatzaren 14an, 19:30ean, Fracking Ez Araba plataformako Mikel Oterok hitzaldia eskainiko du Durangoko Plateruena Kafe Antzokian Fracking Ez kanpainaren barruan. Maiatzaren 17an, 16:30ean, aldiz, Zaldibarren egongo da frackingaren inguruko hitzaldia, liburutegi zaharrean. Gainera, maiatzaren 18an frackingaren gaineko erakusketa didaktikoa egingo dute Mañariko frontoian. Sinadurak ere batuko dituzte.

## Hauteskundeen gaineko ekitaldiak dituzte EAJk eta EH Bilduk

**HAUTESKUNDEAK** > Maiatzaren 25ean Europako Parlamenturako hauteskundeak izango dira, eta datozen egunetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte alderdi politikoei. EAJk mitina du aurreikusita zapatu honetarako Ezkurdi plazan. Ekitaldi hori 12:00etan hasiko da, eta Izaskun Bilbao, Iñigo Urkullu eta Andoni Ortuzar izango dira mitinean parte hartuko duten hizlariak. Bestetik, EH Bilduk ekitaldi politikoa egingo du maiatzaren 21ean, 19:00etan, Ezkurdin. Niko Moreno eta Dani Maeztu izango dira hizlariak.

## Ferixa Nausiko jaietako kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea

**LEHIAKETA** > Maiatzaren 30era arte dago aukera Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketan parte hartzeko. Lanek 70x50 cm izan behar dute, eta formatu digitalean eta luma paperean aurkeztu beharko dira erregistroan. Ekainaren 3tik 20ra kultur etxean ipiniko dituzte kartelak ikusgai, herritarrek gustukoenera botoa emateko. Epaimahai teknikoak iritzi hori aintzat hartuta erabakiko du zeinek jasoko duen lehiaketako 500 euroko saria.

## Azterlanera bisita egin dute 55 urtetik gorako ikasleek

**BISITA** > Gaur egungo munduan bizitzeko gakoak 55 urtetik gorakoentzako formakuntza ikastaroan Durangaldeko hainbat lagun dabil ikasten, Esperientzia Institutua izenez ezaguna den ekimenean. Asteon IK4-Azterlaneko instalazioak bisitatu dituzte, eta bertan egiten den lanaren berri izan dute bertatik bertara. Zahartze aktiboa bultzatzeko ikastaroa Durangoko Udalak eta Amankomunazgoak antolatu dute.

**Iritzia**

**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (farteak barne).

# Berbaz

Alfredo Baeschlin Vilanova | Alfredo Baeschlin arkitektoaren semea | Valentzia, 1928

## “Nire aita euskaldun sentitzen zen; agian, bere herria gogorarazten zion”

Alfredo Baeschlin arkitekto suitzarrak Euskal Herriko eta, bereziki, Abadiñoko baserriak ikertu zituen, beste hainbat lanen artean. Baeschlinen heriotzaren 50. urteurrena dela eta, bere semea gonbidatu dute Abadiñon antolatutako berbaldira



“

*Suitzara bidaia prestatzen genbiltzala II. Mundu Gerra hasi zen, eta Valentzian gelditu behar izan genuen*

“

*Poztasun handia eman digu aitari egindako omenaldiak; ohorea da guretzat*

idatzi nion aurreko lehendakariari, baina ez nuen erantzunik jaso.

Aste honetan Alfredo Baeschlinen omenaldiaren harira agenda zabala prestatu dute. Zelan hartu duzue bere familiar aitorten hori?

Poztasun handia eman digu aitari egindako omenaldiak. Jende askok parte hartuko du Bilbon antolatutako sinposiumean. Era berean, ohorea da Abadiñoko mahai-inguruan parte hartzea. Juan Antonio Garcia Esparza arkitektoarekin batera joango naiz. Esparzak sakonean ikertu du nire aitaren lana. Gainera, Jose Luis Lizundia euskaltzaina ere gonbidatu dute.

### > JONE GUENETXEA

Txapelagaz eta abarketa zuriak jantzita Abadiñotik zehar paseatzen zuen Alfredo Baeschlin (1883-1964) arkitekto suitzarrak. Urte bi eman zituen (1926-1927) Bengoa jauregian bizitzen. Denbora horretan inguruko baserriak aztertu zituen, eta euskara ere ikasi zuen. Tokian tokiko etxe motak bertako kulturarekin, izaerarekin eta hizkuntzarekin bat zetozela zioen. Gainera, margolaria eta poeta ere bazen. Alabaina, 36ko gerran Mirandako kontzentrazio esparrura eraman zuten preso. Gero Suitzara kanporatu zuten, diru barik eta ia itsu. Abadiñon bere izena daraman kale bat egon arren, herritar gutxi ezagutzen dute bere bizitza.

Euskal Herriarekin erabat liluratu zen zure aita.

Euskara euskaldun baten moduan hitz egiten zuen. Euskaldun sentitzen zen. Agian, bere herria gogora ekartzen zion Euskal Herriak. Ni neu ere Euskal Herriari jaio nintzen, Bilbon. Nire aitabitxia Paulino Uzkudun boxeolari euskalduna izan zen.

Baserrien ezaugarriak sakonean aztertu zituen.

Tokian tokiko landetxeak ikertu zituen, baina ez Euskal Herriari bakarrik. Eivissako eta Mallorcako (Herrialde Katalanak), eta Galiziako etxeak ere aztertu zituen. Asko bidaiatzen zuen.

Abadiñoko kale batek bere izena darama. Egon zara inoiz bertan?

Badakit kale bat badagoela, baina ez naiz sekula joan. Nire semea bertan izan zen eta kalearen errotuluari ateratako argazkia erakutsi zidan. Orain izango dut aukera Abadiño ezagutzeko.

Zure aitak idatzi zuenez, “etxeek, erakitzen duten pertsonen baino gehiago irauten dutenez, hainbat belaunaldirentzat izan behar dute, eta ezin dira ohituraren kapritxo bat izan”. Bere etxea zelan diseinatu zuen?

Gure Godellako (Herrialde Katalanak) etxea berak diseinatu zuen. Altxariak eta instalazio guztia egin zituen. Jendea etorri izan da etxe hori ikustera. Oso berezia da.

36ko gerran atxilotu zuten zure aita. Zelako eragina izan zuen horrek familian?

1941ean kartzelaratu egin zuten Valentzian. Ondoren, Miranda Ebroko kontzentrazio esparrura eraman zuten, eta handik Suitzara kanporatu zuten. Espainiar naziotasuna eskatuta zuen, baina ez zioten eman; kanporatu egin zuten eta horrek heriotzatik salbatu zuen. Bisitan joan nintzaion Suitzara eta gutxi ikusten zuen, ia itsu zegoen. Nik 12 urtegan lanean hasi behar izan nuen; arotza izan naiz. Hala ere, txikitik beragaz obrak bisitatzen joaten nintzen, eta asko ikasi nuen beregandik. Ikasitakoagaz etxea eraiki dut neuk bakarrik.

Aitarekin elkartu zineten Suitzatan?

Suitzara bidaia prestatzen genbiltzala II. Mundu Gerra hasi zen, eta Valentzian gelditu behar izan genuen. Beranduago, valentziar batekin maitemindu nintzen, ez nintzen hemendik joan.

Ajuria Enea jauregia ere diseinatu zuen zure aitak. Egon zara bertan?

Bai, kanpotik ikusi izan dut bertara joan izan naizenean. Baina ez dut barrutik ikusteko aukerarik izan. Behin gutuna



Alfredo Baeschlin arkitekto suitzarraren argazkia.

**THE MOCKER'S** | Ritxi Blanco, Asier Elías eta Jon Garcia

# “Irabazi zein ez, udan diskoa grabatzeko asmoa geneukan”

Durangaldeko II. Maketa Lehiaketa irabazi berri du Durangoko The Mocker's hirukote rockeroak; taldearen proiektuez dihardute, besteak beste, Ritxi Blanco eta Jon Garcia taldekideek elkarriketan



Javier Ferdo

**> ITSASO ESTEBAN****Zer balantze egiten duzue maketa lehiaketa honetan izan duzun parte-hartzeaz?****Ritxi Blanco:** Hasieran beldurra geneukan, ez genuelako uste ezer lortzeko aukerarik geneukanik: kontzertuetako bideoetatik hartutako audioak bidali genituen lehiaketara, kalitate askorik bakoak, eta, hala ere, hautatu egin gintuzten. Zuzenekoetan ondo ateratu zaigu dena.**Jon Garcia:** Egia esan, ez geneukan gauza handirik lortzeko esperantzarik, maila oso altua egon delako lehiaketan.**Giro polita egon da lehiaketan?****J.G.:** Oso giro ona egon da taldeen artean, baita finalean ere.**2011n maketa grabatzeko asmoa zeneukaten. Urteotan egin duzue grabaziorik?****R.B.:** Dirua izan da arazoa. Zerbait duina grabatu ahal izateko diru asko behar da, eta orain arte ezin izan dugu nahi bezala egin. Aurrezten ibili gara diskoa grabatu ahal izateko, eta lehiaketa hau irabazi zein ez, udan grabatzera sartzeko asmoa geneukan. Beraz, ezin hobeto inbertitu ahal izango dugu saria.**J.G.:** Azken bi urteak daramatzagu grabatu gura ditugun abesti berriak prestatzen.**Zelako kantak grabatuko dituzue lehenengo diskoan?****R.B.:** Denetarik dago. Badaude oso zuzenak eta rockeroak; badaude baladak; badago beste kanta bat akustikoagoa, eta horretan Jose Antonio nire anaiak harmonika jotzen du; eta badaude beste abesti batzuk luzeagoak direnak, progresiboagoak.**Zer ematen du bakoitzak batura hain potentea izateko?****R.B.:** Asier jazz bateriako goi mailako ikasketak egiten dabil Iruñean, eta bera da perfekzionista: hobetu guran beti.**J.G.:** Ritxi oso elektrikoa da, kontzertuetan ez da momentu batean ere geldirik egoten. *Rock-ker* handia da. Bera da zuzenean gehien transmititzen duena. **R.B.:** Jonen ahotsak, aldiz, nor-tasuna ematen dio taldeari. Askok gustatzen zaigu zelan kantatzen duen, eta, gainera, asko handitu da agertokian. Bera da taldearen irudia, zelanbait.**Taldea heltzen, hobetzen doala nabari duzue?****J.G.:** Askok igartzen dugu hori, bai. Teknikoki zein zuzenekoetan ere asko hobetu dugu.**R.B.:** Gero eta argiago dakigu kanta batekin zer lortu gura dugun, eta beste gauza asko ere

ikasi dugu talde lanean jardunda. Ikasi dugu elkar errespetatzen, zuzenekoetan urduriegi ez jartzen eta kontzertu bakoitza azkena balitz bezala gozatzen.

**Ematen du kontzertuetan asko disfrutatzen duzuela.****R.B.:** Jende askok komentatu izan digu hori, kontzertuetan asko gozatzen dugula dirudiela. Bizi egiten dugu jotzen dugun musika. Ogitar-tekoaren eta joan-etorrietarako gasolina gastuen truke edozein lekutara jotzera joateko prest gaude; ho-

rrexegatik, asko disfrutatzen dugulako zuzenekoetan.

**Zuen hasierako kantuen eta azkenengo sortu duzuenaren arteko aldea zein da?****R.B.:** Hasieran urgenteagoa zen dena: punk rocketik geunden gertuago, azkarragoak ziren sortzen genituen kantak, eta ez genituen hainbeste pentsatzen. Uste dut progresio nahiko logikoa izan duela, zentzu horretan, taldeak: findu egin dugu gure soinua. Gauza gehiago egiteko gai gara orain, kantak bestelako

erregistroekin kantak sortzeko gaitasuna garatu dugu.

**Edozein musika estilo jorratzeko prest zaudete?****J.G.:** Ez gaude genero zehatz batera mugatuta. Era askotako rocka egiten dugu: badauzkagu balada geldoak, rock gogorrago kantak...**R.B.:** Gustuetan antzekoak gara hirurok, eta horrek asko errazten du dena. Adibidez, Led Zepelin eta Deep Purple taldeen musika maite dugu.**Letrak zelan lantzen dituzue?****R.B.:** Gehienetan neuk idazten ditut, eta saiatzen naiz kritikak, autokritikak eta ezinegonak metaforen bitartez adierazten. Bestalde, orain, lehen ez bezala, sentimenduez ere idazten dugu; baditugu desamodioari buruzko letra bi. Baina, musika da gure kanten abiapuntua: ondoren egiten diogu letra.**Letra bako zatiak edo letra bako kantak badituzue?****R.B.:** Nahiko talde instrumentala gara, bai. Baditugu bi minutuko musika zatidun kantak. Izan ere, gure potentzial musikalean konfiantza handia daukagu.**Zuen adineko jendea joaten al da The Mocker's entzutera?****R.B.:** Egia da beste belaunaldi bateko musika dela guk egiten duguna. Nahiko undergrounda da gaur egun, ez da salgarria: erritmo arraroak dira, psikodelikoak... Nabaritu dugu musika edo oso musikazalea den jendea erakartzen dugula batez ere. Baina oso musikazalea ez den jendeari ere gustatzen zaio kontzertuetako gure ikuskizuna.**Zelan imajinatzen duzue taldearen etorkizuna?****R.B.:** Musika eginda gozatzen, diskoa grabatuta eta ahal beste jotzen. Eta, laster, Abadiñoako santrokazetan jotzen.

Javier Ferdo

## &gt; BERTSOLARITZA

# Asteburuan dira Durangaldeko Txapelketako kanporaketa saioak

Gaur gauean, Zornotzan eta, domekan, Izurtzan izango dira kanporaketak



2012ko Durangaldeko Bertsolari Txapelketako finalaren osteko irudia.

## &gt; AMAIA UGALDE

Zortzi bertsolari aurkeztu dira Durangaldeko Bertsolari Txapelketara. Gaur gauean, Zornotzako Propi jatetxean kantatuko

dute herriko lau bertsolarik, afalostean. Domekan, berriz, Izurtzan izango da bigarren kanporaketa: Argintxu kultur elkartearen, merienda ostean.

Eta, maiatzaren 18an, Berrizko Kultur Etxean kantatuko dute sailkatutako sei bertsolariek, Eskualdeko Bertsolari Txapelketako finalean.

## &gt; LITERATURA

## Gaur bigarren zita, Poesia eta Pentsamendua jardunaldietan

Atzoko eta gaurko prestatu dituzte Durangoko Poesia eta Pentsamendua jardunaldien aurtengo bi hitzorduak: Arte eta Historia Museoa, 19:00etan. Jardunaldien VII. edizioa da aurtengoa, eta aurreko urteetan bezala, berbaldiak eta poesia irakurraldiak eskainiko dizkiete literaturazaleei.

Jon Bilbao idazleak eskainiko du gaurko berbaldia: *Moby Dick a través del tiempo y el espacio*. Bilbaoren hitzaldiaren ostean, Josetxo Azkonak eta Joan Aldamizetxek euren poesia errezitatuko dute.

*La expulsión de los poetas de la ciudad* hitzaldiagaz hasi zuen Javier Aguirrek jardunaldia atzo, eta Uxue Juárez eta Juanra Madariaga poetek euren olerkiak errezitatu zituzten.

## &gt; MUSIKA

## Durangaldeko, Arratiako eta Lea-Artibaiko kantarien saioak

Domekan, 18:00etan hasita eskainiko dute Durangoko Plateruenean euskal kantuen eta haur kantarien emanaldia. Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuko du kafe antzokiko hitzordu hori. Durangaldeko, Arratiako eta Lea-Artibaiko kantari gazteen emanaldiak izango dira domekako saioan entzungai: Durangoko, Abadiñoko, Atxondoko, Ermuko, Zeanuriko, Markinako eta Zaldibarko kantariak izango dira protagonistak, eta taldeka, bakarka zein bikoteka ariko dira.

Askotariko formatuetan ariko dira kantariak; pianistak, gitarristak edo soinu-jotzaileak lagunduta eskainiko dituzte zenbait emanaldi, esaterako, baina ahotsagaz bakarrik, a capella, ere jardungo dira.

## &gt; PINTURA

## Kaleko pintura lehiaketa egingo dute Berrizen

Margo lehiaketaren XV. edizioa egingo dute bihar

Kaleko pintura lehiaketaren XV. edizioa antolatuko du Berrizko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesagaz. Bihar, herriko kale edo txoko berezia eta gustukoa aukeratu, eta bertatik bertara ariko dira margolariak lehiaketara aurkeztuko duten lana gura duten materialagaz eta nahi duten formatuan osatzen.

Bizkaiko hainbat herritatik zein Euskal Herriko beste lurraldeetatik euren lanabesak hartuta etorriko dira 16 urtetik gorako margolariak, Berrizko lehiaketan parte hartuz.

Berrizko Kultur Etxean 09:00etatik 10:00etara zigitatuko ditu antolakuntzak margolariak erabiliko dituzten euskarriak, eta 14:00etatik 14:30era aurkeztu beharko dituzte artistek euren lanak –sinatu barik, eta autorea-

Eskualdekako txapelketak jokatzen dabilta egunotan, udazkenean Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartu ahal izateko. Durangaldean, asteburu honetan dira kanporaketak.

Gaur, 21:00etan, afaritarako batu eta gero kantatuko dute lehenengo bertsolariek. Zornotzako Propi jatetxean, lau bertsolari zornotzar izango dira kantuan: Ander Aldazabal, Ander Gerrickaetxearria, Beñat Romero eta Jon Ander Urkiaga.

Maiatzaren 11n, aldiz, ezohiko formatukoa izango da kanporaketako bertso saioa, arratsaldean, merienda baten ostean kantatuko dutelako beste lau bertsolariek, Izurtzako Argintxu kultur elkartearen. Aitor Bizkarra, Ander Salaberria, Garikoitz Sarriugarte eta Gorka Lazkano izango dira bertsolaria.

Zornotzako afarirako txartelak 15 euro balio du eta Izurtzakoak, berriz, 5. Durangoko Plateruenean, Propi jatetxean eta Izurtzako herriko tabernan, eta [durangaldea.be@gmail.com](mailto:durangaldea.be@gmail.com) e-mailean daude eskuragarri.

## GEURE DURANGALDEA

JON  
IRAZABAL

Gerediaga  
Elkartea



## Alfredo Baeschlin

Alfredo Baeschlin oroituiko dute Abadiñon, gaur, bere semearen partaidetzarekin. Askotan entzun ditugu bere arkitektura lanei buruzko goraipamenak, baina bere nortasunagatik eta konpromisoagatik ere pertsona handia izan zen Alfredo.

1883. urteko San Prudentzio egunean jaio zen Schaffhausen (Suitzan). 1920an Ajuria Enea eraiki zuen, eta 1926-27an Abadiñoko Bengoa jauregian jarri zuen bere bizitokia. Buru-belarri aritu zen euskal arkitektura ikertzen, eta emaitzak, Bilbon, EAJren *La Tarde* egunkarian argitaratzen zituen. Euskara ere ikasi zuen eta euskal gizartearen barneratu zen.

1928an, bere emaztea eta seme jaioberria harturik, Espainiari buelta ematekotan ontziratu zen. Bisitatzen zituen lurraldeei buruzko artikulua idazten zituen egunkarietan. 1929an, Godellan (Valentzia) jarri zuen bere bizilekua. Katalana ikasi eta hango gizartearen ere barneratu zen. Proiektuak burutu zituen, artikulua idatzi zituen, erakusketak prestatu zituen... Horrela bizi izan zen 1936-39ko gerra hasi arte. Gerra garaian Kataluniako Generalitatearentzat egin zuen lan.

Gerra bukatu ondoren, bere lanetara itzuli zen, baina 1941ean, ustekabea, frankistek atxilotu egin zuten. Valentziako kartzelan eta Miranda Ebroko atzerriarrentzako kontzentrazio-esparruan eduki zuten, eta 1942an Suitzara atzerriatu. Azken urteak bere jaioterriko ostatu batean eman zituen, erdi itsu, zaharkiturik eta ogibide bat izateko ikerketak eta itzulpenak eginez, 1964ko urtarriaren 29an hil zen arte. 1984ko apirilaren 28an oroigarri bat jarri zuen Gerediaga Elkarteak Astolan: euskara eta Euskal Herria hain maite izan zituen gizon handia ez ahazteko. 2011n berria jarri genuen, aurrekoa birritan apurtu baitzuten.

**CABARET CHIHUAHUA**  
Pabellón 6

**Maiatzaren 10ean - 20:00etan**

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia  
[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

**MAIATZAK 9 - 18:00etan DOAN**  
SARRI, HITZEZ ETA AHOTSEZ  
ETENIK GABEKO JENDEAURREKO IRAKURKETA

**MAIATZAK 10 - 22:30ean 14/16 euro**  
PABLO CHIAPELLA  
BAKARRIZKETA

**MAIATZAK 11 - 18:00etan DOAN**  
EUSKAL KANTU  
ETA HAUR KANTARI  
EKITALDIAK 2014  
EUSKAL KANTUAK  
MUSIKA KONTZERTUA

Eguneko menua astelohenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu  
gura badozu  
**deitu!**

**946 217 902**



*Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!*



**H**arrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak, bai zuzendaria eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere beraiek baitaukate.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo, besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

[www.hotelharrison.com](http://www.hotelharrison.com)

[hotelharrison@hotelharrison.com](mailto:hotelharrison@hotelharrison.com)

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonarentzako afaria eta gaua zozkatuko ditugu*

**Zein taldek irabazi du Durangaldeko II. Maketako Lehiaketa?**

**ERANTZUNA:** [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org)-ra edo Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta  
Aurreko zozketako irabazlea: Oier de la Fuente. Zorionak!

**QUIQUE GAGO** | Aktorea | Durango, 1967

## “Bilboko Pabellón 6-tik atera bagara, jendearen harreragatik izan da”

Maiatzaren 10ean, Durangoko San Agustinen eskainiko dute Quique Gago durangarrak eta Pabellón 6 proiektuko kideek ‘Cabaret Chihuahua’ obra

### > ITSASO ESTEBAN

**Argazkian ikusten denez, Fredy Mercury zara ikuskizunean, ezta?**

Nik ez nuke hori esango. *Cabaret Chihuahua*, batez ere, horixe da: kabareta. Horrek dakarren sarkasmo, ironia, kritika, musika eta umore guztiagaz. Aktoreok ipintzen dugu hori guztia. Musika kanta ezagunen moldaketek osatzen dute, eta pianista batek eskaintzen du zuzenean.

### Zer kontatzen du istorioak?

Durangar baten istorioa: gaupasa baten ostean, Urkiolatik behera datorrela, istripu bat daukan durangar batena. Chihuahua kabaretean amaituko du, eta hor hainbat pertsonaia agertuko zaizkio. Zer izan nahi duen erabakitzea izango da bere dilema.

### Kasualitatea da protagonista eta zu durangarrak izatea?

Bai. Pabellón 6 proiektuaren

barruan sorturiko lana da. Testua Felipe Lozak idatzirikoa da: besteak beste, *Bilbao, bilbao* edo *Sinvergüenzas* lanen egilearena. Zineman, Ramon Barearen *El coche de pedales* filmean ere ari turikoa da, besteak beste, Loza.

### Bilbon arrakasta itzela eduki du emanaldiak, ezta?

Bai, sei mila lagunek baino gehiagok ikusi dute lana Bilboko Pabellón 6 aretoan: 55 emanaldi eskaini ditugu. Estreinatua genuenetik pentsatzen genuen jendea gustatuko zitzaioela; izan ere, geu ere asko gozatzen ari ginen, baina benetan ezin hobe izan da ikusleen erantzuna.

### Zergatik izan du arrakasta?

Batetik, ikuskizunaren kabaret izaeragatik eta, bestetik, Pabellón 6 proiektuaren esperientziagatik. Jende guztia egon da oso gustura hango giroan. Pabellón 6 aretoko argi leunak

eta taberna giroak laguntzen du emanaldietan distentsio giroa sortzen; jendeak trago bat har dezan geldialdia egiten dugu, rantxerak ipintzen ditugu... Izan ere, antzokira joateko trajea jantzi beharrik ez dagoen arren, teatroak oraindik ere badauka seriotasun puntu hori. Bestalde, oso barregarria da ikuskizuna, eta egia biribilak esaten ditugu. Ikuskizunaren sloganak dioen bezala, apur bat zombia den musikal euskal-mexikarra da gurea. Krisi sasoirako aproposa.

### Goraka joan da ikuskizunaren inguruko tenperatura.

Bai, Bilboko Aste Nagusian hasi ginen, eta orduan ez zen publiko gehiegi etorri ikustera –jendea jaiei begira zegoen batik bat, antzerkirako gogoz baino-. Baina denbora kontua izan da ahoz ahoko zabalkundea hastea: horri esker, sekula antzerkira edo Pabellón 6 aretora etorri bako jende asko hurreratu zaigu.

### Geure buruaz barre egiteko prest joan behar dugu ‘Cabaret Chihuahuara’, ezta?

Bai, noski! Horixe delako ikuskizunaren ardatza! Euskal idiosinkrasiaz barre egiten dugu, eta kasualitatez, gainera, pertsonaietako bat durangarra da.

### Jendeak zer komentario egin izan dizue lana ikusitakoan?

Pabellón 6 aretotik irten bagara, hain zuzen, jendearen harreragatik izan da: jendeak ateratzera animatu gaituelako. Zortzi aktore daude ikuskizunean eszenan, eta ez da saltzeko erraza den ikuskizuna; garestia da. Antzokiek ere ahalegina egin behar izan dute ikuskizun hau progra-



matzeko. Obra ikusi duten programatzaile guztiek agertu dute erakusteko interesa, eta elkarrekin lan egiteko, hau zabal dadin.

### Aurretik bazenuen kabaret batean esperientziarik?

Lehenengo aldia dut honelako lan batean; nahiko berria izan da, erronka interesgarria.

### Noiztik hartzen duzu parte Bilboko Pabellón 6 proiektuan?

Hasieratik, proiektua abiatu zenetik. Ramón Barearen ideia bat dago aretoaren eta ekimenaren oinarrian: aktoreok gure lanak antzezteko espazio finko bat izatea da ekimenaren ardatza. Ikuskizunak espazio batean mantentzea da helburua: emanaldia ez dadila egun bateko kontua izan. Aktoreon beharrezanetik sorturikoa da, baina publikoaren erantzunak erakusten du hutsune hori bazegoela. Lehenengo urtean askotariko programazioa eskaini genuen, eta bigarren urtetik aurrera geure ekoizpen propioak egin ditugu.

### Urte asko daramazu antzerki ibilbidean murgilduta.

Bai, hain justu, hil honetan bete dira 30 urte lehenengoz ohol-tza batera igo nintzela. Institutuko Sapuerri antzerki taldeagaz egin nuen lehenengo lan amateurra. Duela 10 urte, ostera, Teatro Mutante proiektua abiatu genuen. Krisi sasoi honetan ez dugu ikuskizun propiorik, eta, batez ere, beste talde batzuekin jardun gara koprodukzioan. Era berean, hamar urte dira *El arquitecto y el emperador de Asiria* lanagaz Durangoko agertoki batean azkenengoz aritu nintzenetik.

### Baduzu urduritasun berezirik Durangon berriro aritzegatik?

Jendea animatzen jardun naiz azken egunetan, ikustera etorri dadin, eta, egia esan, badaukat urduritasun puntu berezi bat. Urteotan nire lanari buruzko interesa agertu duen jende guztia animatuko nuke aukera hau aprobetxatuz eta San Agustinerarekin etortzera.



### Goizane Azpiri Maurtua

Naturopata kolegiatua, 3.515 zk.

*Eskuzko teknikan eta psikofisikoetan aditua*

Kontrakturen aurkako masajea

Drainatze linfatikoa

Osteopatia

Teknika kraneo-sakrala eta erraietako teknika

Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak

Etkez etxeko zerbitzua  
(aurretiko hiltzordua)

San Ignazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599

# GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# **Kirola**

**Ander Iturraspe** | Abadiño, 1989 | Athleticen jokalaria |



## *“Klubak eta, batez ere, zaleek horrelako urte bat behar zuten”*

Hamabost urteren ostean, Txapeldunen Ligarako sailkatu da Athletic; denboraldia aztertu du Iturraspek

### **> MARKEL ONAINDIA**

Europako txapelketa garrantzitsuenean, Txapeldunen Ligan, parte hartzeko aukera lortu du Athleticen aurten. Liga amaitzeko jardunaldi biren faltan matematikoki sailkatu da, denboraldi bikaina egin eta gero. Horren arduradunetako bat izan da Ander Iturraspe abadiñarra. Taldearen motorretako bat izan da defentsa lanean zein eraso antolatzen. Domekan zaleekin batera ospatu gura dute sailkapena, San Mames Barriaren Realaren kontratutako duten lehenengo derbian. Lezaman, pozik eta beti bezain atsegin erantzun die galderei Iturraspek.

### **Lorpen handia da Txapeldunen Ligarako sailkatzea, ezta?**

Argi dago guretzat sekulako meritua dela. Joan zen urtean momentu gaitzak bizi izan genituen denok; klubarentzat urte oso zaila izan zen. Klubak eta, batez ere, zaleek horrelako urte bat behar zuten. Orain dela urte bi final biak izan ziren, oso txarto amaitu genuen denboraldia, baina sentsazio onekin. Joan zen urtea ona izango zela zirur-

dien, eta ez zen horrela izan. Denok behar genuen aurten egin dugunaren moduko urte bat.

### **Denboraldi hasieran gutxi esperoko zuten taldea hain ondo ibiltzea.**

Inork ez zuen espero. Guk bagenekien taldeak ahala eta kalitatea zeuzkala. Baina iazkoa lako denboraldi batetik zotozenez, zuhurra izaten saiatzen zara. Denboraldi hasiera oso ona izan zen, puntu asko lortu genituen. Gero, konstantzia eduki du taldeak. Denboraldiaren erdialdean konturatu ginen gertatu ahal zela Europar ibiltzea. Bagenekien hor egon behar genuela, nahiz eta hainbeste ez esan publikoki. Laugarren postuan kokatu ginenean, horren alde borrokatzeko obligazioa genuen. Taldeak jardunaldi biren faltan lortu du sailkapena, eta horrek ere meritu itzela dauka.

### **Zein izan da hain denboraldi ona egiteko gakoa?**

Gakoa izan da oso erregularrak izaten ari garela. Denboraldi osoan ez ditugu galdu partidu bi segidan ligan, eta horrek erakusten du gure erregulartasu-

na. Kopan ere Atlético Madril aurka nik uste oso lehiakorrak izan ginela, eta zehaztasun batzuegatik ihes egin zigula garaipean. Denboraldi oso positiboa izan da.

### **Zelan bizi izan zenuen Rayoren kontrako neurketa eta osteko ospakizuna?**

Momentu itzela izan zen. Zortea eduki genuen 0-3 irabazi genuelako; azkenean disfrutatzeke momentuak ere badaude partiduan. 5.000 pertsona egon ziren; tartean nire gurasoak. Ilusio pilo egiten du. Giro ona egon zen, jende asko zegoen, emaitza bikaina izan zen... Zer gehiago eskatu ahal dugu? Rayoren kontra zen gainera, eta talde bietako zaleen arteko konexioa dago.

### **Aurreko astean Sevillaren kontra irabaztea ere garrantzitsua izan zen.**

Bai. Euren azkenengo hamar partiduetatik bederatzi irabazi zituzten. Guk bagenekien etxean oso indartsu ari ginela, gure bigarren itzulia ere oso ona izaten ari dela. Sendo ibili ginen, partiduan agindu genuen. Zelaiko kalitatea eta erritmoa dauz-

kagun erakutsi genuen. Final baten modukoa zen.

### **San Mames Barriari ere etekina aterako diozue, partidu ugari irabazita.**

Bai. Denboraldi hasieran ez neukan argi zelan ibiliko ginen. Nahiz eta leku bereberetan egon, gauzak aldatu egiten dira. Zorionez ondo ibili gara, eta gure zelaietan lortutako emaitzak funtsezkoak izan dira.

### **San Mames zaharreko magia mantentzen da berrian?**

Ez dakit. Oraindik nik uste ezetz. Zelaia ez dagoenez amaituta, ezin da alderatu. Baina besteak bazeukan zerbait berezi egiten zuena. Partidu onak jokatu izan ditugu berrian, baina ea ahalik eta arinen ixten duten eta orduan erantzungo dizut.

### **Eta pertsonalki zelan sentitu zara aurten?**

Nik ere behar nuen horrelako urte bat. Iaz arazo fisiko pilo bat eduki nuen; taldea ez zen bere mailan egon, eta ni ere ez. Uste dut denboraldi osoa izan dela, eta oraindik hobeto jokatu ahal dudala.

### **Mikel Ricogaz bikote sendoa osatu duzu zela erdian.**

Entrenatzaileak proba pilo egin zituen denboraldi hasieran, eta, azkenean, biok eduki dugu jarraikortasuna, Ander Herrera apur bat aurretik zegoela. Mikelek denboraldi itzela egin du, eta golak ere sartu ditu gainera. Mutil bikaina da.

“

*Uste dut denboraldi osoa izan dela, eta oraindik hobeto jokatu ahal dudala”*

### **Ernesto Valverdegaz zelan?**

Entrenatzaileak lan gaitza zeukan. Bielsak harrera ona eta eragina izan du Athleticen zaleen artean; jende asko gogoratzen da beragaz. Bestalde, Ernestoren bigarren etapa da. Berak ere esan zigun bigarren etapak sarritan ez direla onak izaten. Jokalari asko pubiseko arazoekin hasi ginen gainera. Hori guztia kudeatzea zaila zen. Argi dago, hala ere, talde ona daukela, konprometitua. Lagunak gara guztiok, eta daukagun giroa itzela da.

### **Domekan derbia dator. Ospatzeko partidua izango al da?**

Derbi bat berriro irabazteko aukera da guretzat. Gainera, San Mamesen da, eta inoiz ez dugu gura izaten Realak bertan irabazterik. Giro oso ona izango da, festa baten modukoa. Irabaztea da gura duguna, derbia delako, eta zaleek, klubak eta guk nahi duguna delako.

### **Udan Txapeldunen Ligarako sailkapen kanporaketa edukiko duzue. Hasi zarate aurkari posibleak aztertzen?**

Noski komentatzen dugula. Gure aurkaria zein izango den garrantzitsua izango da. Zozketan talde oso-oso gogorak sartuko dira. Oraindik ez dago garbi beste ligetan zer pasako den, baina horri begira gaude.

### **Kanporaketa gaindituz gero, zein talderen kontra jokatzeko gustatuko litzaizuke? Edo zer estadio bisitatzea?**

Borussia Dortmunden zelaia asko gustatzen zait. Harmaila bakarra dauka, behetik gorakoa. Horma baten modukoa da eta lagun pilo bat sartzen dira bertan. Giroa oso ona da, eta taldea ere sekulakoa da. Zela horretan jokatzeko kuriositatea daukat.

> **HERRI KROSA**

# Durangoko kaleak korrikalariz beteko dira domekako herri krosean

Iazko lehen aldiak izandako harrera onaren ondoren, herri krosaren bigarren aldia antolatatu du aurten Mugarra Triatloi Taldeak domekarako



Iazko lehen aldiak 500 korrikalarik baino gehiagok parte hartu zuten. MugarraTT.

> **JOSEBA DERTEANO**

Domekan II. Herri Krosa antolatuko du Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko kaleetan zehar. Iaz 500 parte hartzailetik gora izan ziren, eta aurten ere kopuru horren bueltan ibiltzea

itxaroten dute. Korrikalari guztiek Bizkaiko federazioak homologatutako ibilbide batean zehar lehiatuko dira.

Herri krosa 10:00etan hasiko da Ezkurdin, eta helmuga ere toki berean ipini dute. Lasterke-

ta bi daude aukeran: hamar eta bost kilometroko bana. Ibilbidea berbera da lasterketa bietan, baina luzekoek ibilbideari itzuli bi emango dizkiote. Korrikalariak Ezkurditik Madalenara jaitsiko dira; Landako etorbidea

zeharkatu eta Arripausuetan bidegorrira sartuko dira; atzealdetik atletismo pista irtengo dira, eta handik Landako etorbidea, Mikeldi eta Frai Juan Zumarraga kaleak zeharkatu eta Askatasun etorbideetik Ezkurdin kokatuta dagoen helmugara etorrigo dira.

Ibilbideak bost kilometro baditu, horietatik 3,5 inguru bidegorritik zehar izango dira: "Durangoko bidegorriak ahalik gehien erabiltzen saiatu ginen ibilbidea osatzerako orduan, azpiegiturak aprobetxatzeko eta jendea erakusteko", azaldu du Mugarrako Serafin Bereziartua Txelak. Izen-ematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean egin daiteke. Gaur da izena emateko azken eguna.

> **Gaztetzozako duatloiak**

Herri krosa 14 urtetik gorako lagunei bideratuta dago, baina hortik beherakoek ere izango dute ekimenean parte hartu eta euren dohaina jendaurrean erakusteko aukera. Izan ere, herri krosa amaitzen denean, gaztetzozako duatloiak hasiko dira benjamin, kimu eta haur kategorietan. Gazteen artean duatloirako zaletasuna sustatzea dute helburu lasterketa horietan. Gaztetzozko duatloietarako izen-ematea egunean bertan egin daiteke.

**ADITUAREN TXOKOA****Unai Zamalloa**

Saskibaloia

**Ondo hasi, bikain amaitu**

Titulu hori izan daiteke denboraldi hau laburbiltzen duen esaldia. Egia esanda, gure talde nagusiek aurten egin dutena eta oraindik egiten ari direna benetan itzela da.

Zornotzako taldearekin hasiko naiz, denboraldia bukatu berri dauka-eta. Aurrekoan esan nuen bost partiduren faltan maila mantentzeko lanak eginda zituela. Liga bukatzeko bost partiduren faltan helburu nagusia beteta, denboraldi honetan izan dituen zailtasun guztiak gaindituta (zenbat lesio jasan dituzten!), mailaz igotzeko playoffetan aritzea lortu zuen. Talde hau inoiz ez da asetzen!

Lan txukuna egin du eta C.B. Prat taldea hiru partiduetan jokatzera derrigortu du, etxean irabazitako partidua ederraren ondoren. Esan dezagun C.B. Prat Urrezko LEB mailara igotzeko faboritoena dela. Zorionak Zornotza!

Beste alde batetik, Tabirakoren nesken taldeak, Lehenengo Mailako bere taldean, liga lehenengo postuan amaituta, datorren asteburuan, maiatzaren 16tik 18ra, Emakumeen 2. ligara igotzeko fasea jokatu du lau taldez osatutako ligaxka batean. Oraindik ez dago argi non izango den azken fase hori, baina posible da Salamancan izatea. Taldeak Universidad de Salamanca, Bera Bera, Tabirako eta oraindik erabakitzeke dagoen laugarren talde bat izango dira. Aupa neskek! Aupa Tabi!

Ia hurrengoan berri on gehiago izaten ditugun!

> **TXIRRINDULARITZA**

# Bizkarra sailkapeneko lider eta Bizkaiko txapeldun

Euskaldun Torneoko lasterketa bi irabazi ditu segidan

Joan zen asteburua biribila izan zen Mikel Bizkarra (Mañaria, 1989) Gomur-Ferroatlántica taldeko txirrindulariarentzat. Zapatuan Berriatuko San Gregorio Saria irabazi zuen eta jokoan zegoen Bizkaiko Txapelketa ere berarentzat izan zen. Hurrengo egunean, berriz, Azpeitiko Urrakiko Igoera irabazi zuen.

Proba biak Euskaldun Torneorako puntuagarriak ziren, eta batutako puntuekin bera da sailkapen orokorreko liderra. Mañariarrak puntu bateko al-

dea ateratzen dio Julen Mitxelenari.

Bizkarrak begiz jota zuen Urrakiko Igoera, mendatean amaitzen zelako. Igoeran ihes egin eta bakarrik helmugaratu zen, bere dohainak erakutsita.

**Ane Ramirez onena Ozaetan** Bestalde, Bizkaia-Durangoko Ane Ramirezek Ozaetako proba irabazi zuen. Yulia Ilinykhik taldekidea bigarren sailkatu zen, eta Euskaldun Torneoko lider kokatu da.



Joan zen asteburuan birritan jaso zituen besoak Mikel Bizkarrak. M. Zuazubizkar.

**hitz** liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

--	--	--

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

Bulegorako zigituak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

**ZURE IBILGAILUA AZTERTZEKO 12 ARRAZOI DITUZU**

MARKA GUZTIETARAKO BALIOZKOA

**ETA DEN-DENA DOHAINIK.**

DOAKO AZTERKETA OINARRIZKO 12 SEGURTASUN OSAGAIETAN:

**EGOERA:**

1. PNEUMATIKOAK
2. IHES-HODIAN ETA FINKAPENETAN
3. HAIZETAKO-GARBIGAILUAK
4. TRANSMISIO HAUSPOA
5. DIREKZIO-HAUSPOA

**LIKIDO MAILEN EGIAZTAPENA:**

6. DIREKZIOA
7. BALAZTAK EDO LHM EDO LDS
8. HOZGARRIA
9. MOTORRAREN OLIO-MAILA

**ESTANKOTASUNA:**

10. MOTELGAILUA
11. MOTORRA
12. ABIADURA-KAXA

GAINERA,

**%30** EKO  
DESKONTUA

BALAZTA-PASTILLAK,  
BALAZTA-DISKOAK,  
MOTELGAILUAK ETA  
HAIZETAKO-GARBIGAILUAK.



Deskontua ordezeko piezetarako baino ez da  
(eskulana ez dago barne).

**BATERIAREN DIAGNOSTIKOA DOHAINIK:**

BATERIAREN EGOERAREN EGIAZTAPENA,  
KARGA ETA ABIO-MOTORRA.

CITROËN 60 AH <small>(ref.: 5600TJ)</small>	CITROËN 75 AH <small>(ref.: 5600TC)</small>	EUROREPAR 60 AH <small>(ref.: 1609232680)</small>	EUROREPAR 70 AH <small>(ref.: 1609232380)</small>
<b>84,50€</b>	<b>111,00€</b>	<b>72,80€</b>	<b>95,50€</b>

Bateriaren salneurria, BEZA barne. Beste CITROËN edo EUROREPAR baterietan  
%30eko deskontua ezarriko zaie salneurri ofizialei (eskulana ez dago barne).

**%10** EKO DESKONTUAREKIN ESKULANEAN

2014/04/10tik 2014/06/30ra

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

**TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA**

Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com http://redoficial.citroen.es/iurreta

> **FUTBOLA**

## Ezkurdik eta Amorebieta B-k mailaz igotzea lortu dute erregionalean

Durangoko Ezkurdik Lehenengo Erregionalean jokatu du hurrengo denboraldian; Amorebieta B, berriz, Bigarren Erregionalerako igotzea lortu du.



Ezkurdi futbol taldeko kideak igoera ospatzen, domekako partidua amaitu ostean.

> **JOSEBA DERTEANO**

Ezkurdi eta Amorebieta B taldeek mailaz igotzea lortu zuten azken asteburuan. Ezkurdik Lehenengo Erregionalean jokatu du datorren denboraldian, klubaren 20 urteko historian lehenengoz. Amorebieta B-k, aldiz, Bigarren Erregionalerako igotzea lortu du, urte bitan Hirugarren Mailan aritu ostean.

Ezkurdik bazekien mailaz igotzea zela domeka arratsaldeko partidua hasi baino lehen, goizean La Peña arerio zuzenak husna berdindu zuelako Iurretako B-ren kontra. Igotzeko borrokan zebilen Iurretako B-ri ere ez zion ezertarako balio izan puntuak, jardunaldi baten faltan lau puntu aurretik duelako promozio postuan dagoen La Peña. Ezkurdik 3-0 menderatu zuen Atxulaur; Ander Gangoitia, Michael Gutierrez eta Eneko Uribe izan ziren goleatzaileak. Amorebieta B-k ere 3-0 irabazi

zion Ermua B-ri. Unai Zugazaga, Aitor Agirre eta Mikel Txartek sartu zituzten golak. Horrela, Dani Hitaren –iaz jubenil taldea entrenatu zuen– aginduetara ibili diren mutilek azken urte bietan bila zebiltzan igoera lortu dute. Talde lanean egon da gakoa, baina Aitor Agirreren 22 goleak lagundu dute bidea leun-

tzen. Bera da multzoko golegile nagusia.

Gainontzeko maila dagoenez, Iurretakoko talde nagusia Hirugarren Mailara igotzeko borrokan sartuta dabil liga amaitzeko hiru partiduren faltan. Elorrio, Berriz eta Abadiño, aldiz, ez jaisteko borrokan dabilza zein bere mailan.



Amorebieta B-ko jokalariek aldageletan, pozez gainezka igoera lortu ondoren.

> **PILOTA**

## Arroiaberi azken agurra eman dio pilota munduak

Joan zen astean hil zen Paco Fernández de Arroiabe

Pilotariak, federazioetako eta pilota eskoletako ordezkariak... Elorrioko basilika lepo egon zen joan zen barikuan, Paco Fernández de Arroiabe elorriarrari azken agurra emateko. 69 urte-gaz hil zen joan zen eguenean. Gaztetan afizionatu mailako pilotaria izan zen Arroiabe, baina, batez ere, ondoren pilotagintzan eta pilotaren alde egindako lanagatik izan da hain maitatua pilota munduan.

Esaterako, Roberto García-Ariño gaztetan Arroiabegaz pilotan jokatu du, eta laguna zuen. "Eskuma dotoreko aurrelari langilea" izan zela gogoratu

du. Haren bizitzak hiru zutarri zituela uste du: "etxeokak, Elorrio eta pilota. Pilota maite zuen. Afizionatu mailako makina bat txapelketarako pilotak egin zituen eta txapelketei jarraipena egiten zien".

Jose Manuel Fuentes Bizkaiko Pilota Federazioko presidentea ere berba berak erabili ditu Arroiabe gogoratzerakoan: "Pilota maite zuen. Txapelketa askotara joaten zen pilotak eta pilotariak ikustera". Bere izaera xaloa nabarmendu du: "Pertsona eramaneraza zen, beti laguntzeko prest. Beti botako dugu faltan".

> **PILOTA**

## Durango eta Iurretako aurrera herriartekoan

Herriarteko 45. Pilota Txapelketa lehen kanporaketa gairatu dute Durangok eta Iurretak. Durangok Lezama kanporatu du; nagusietako partidua biak galdu, baina gazteetako eta kadeteetako denak irabazi ditu. Bigarren kanporaketan Lemoa izango du kontrario. Iurretak joaneko eta itzuliko partidua guztiak irabazita kanporatu du Etzebarri. Orain Leioa izango du aurrez aurre. Kanporaketa hori gairatu du balu, Elorrioren kontra jokatu du luke final zortzirenetan. Atxondok bigarren fase horretan ekingo dio txapelketari eta Sestao izango du aurkari.

> **TRINKETE**

## Trinketlari onenak lehian San Trokaz Sarian

Abadiño San Trokaz Saria trinketlari onenak batuko ditu beste behin Tornosolon. Esaterako, Ipar Euskal Herriko Txapelketa txapelkun eta txapelkunorde geratu berri diren Sorhuet eta Harismendi etorriko dira. Domekan, 10:30ean, final aurreko biak jokatu dituzte. Lehenengoan Gonzalez eta Harismendik L. Lambert eta Ugarte izango dituzte kontrario; bigarrenean Sorhuet eta Antxiak Uriarte eta X. Lambertek kontra jokatu dute. Finala maiatzaren 15ean, 18:00etan, jokatu da. Paleta gomako eta gaztetxoan mailetako txapelketa ere egingo dituzte aurrerantzat.

> **TXIRRINDULARITZA**

## Otxandion gazte mailako onenak lehian, domekan

Domekan gazte mailako proba garrantzitsu bi jokatu dira Durangaldean. Otxandion erlojupeko Euskadiko Txapelketa egongo da jokoan nesken kadete eta gazte mailetan. Lehenengo txirrindulariak 16:30ean irtengo dira eta 10,6 kilometroko ibilbideari aurre egin beharko diote.

Iurretan, aldiz, Bizkaikoloreak V. Emakumeen Klasika lehiatuko dute zapatuan nesken kadete, junior eta elite mailetan. Euskaldun Torneorako puntuagarria da, eta Bizkaiko Txapelketa ere jokoan izango da. Kadeteek 44 kilometroko ibilbidea osatuko dute, juniorrek 70ekoa eta nagusiek 90ekoa.

> **AGENDA**> **FUTBOLA****OHOREZKO MAILA****Iurretako - Padura**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

**Elorrio - Gatiika**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

**MAILA GORENA****Zaldua - Urduliz**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

**Abadiño - Trapagaran**

· Zapatuan, 17:00etan, Astolan.

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)****Iurretako - Mungia**

· Domekan, 18:15ean, Larrakozelaian.

**BIGARREN ERREGIONALA****Iurretako B - San Antonio**

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

> **ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****Elorrioko Buskantza - Bilbo**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

**Mallabia - Internacional**

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

**MAILA GORENA****Kurutziaga - Muskiz**

· Zapatuan, 18:15ean, Landakon.

**Sasikoa B - Presion Break**

· Zapatuan, 19:45ean, Landakon.

**LEHENENGO ERREGIONALA****Abadiño Gaztetxie - Arabella**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

**Elorrioko Buskantza C - Zuentzat**

· Domekan, 12:15ean, Elorrian.

**Dantzari - Pozgarri Adarve**

· Zapatuan, 16:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

> **ARETO FUTBOLA****LEHEN MAILA (gizonak)****Tabirako Baqué - Padura**

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

**ERRUGBIA**> **CAMPUSA**

## Kirola eta euskara batuta, campusa prest Otxandion

Itzarri enpresak kirola eta aisialdia uztartzen dituen campusa antolatuko du ekainaren 23tik 27rako. 2000. eta 2008. urteen artean jaiotako gaztetxoei dago zuzenduta. Izen-ematea mugatua da eta [administrazioa@itzarrikas.net](mailto:administrazioa@itzarrikas.net) e-mailaren bidez egin daiteke. Otxandion eroldatutako gazteentzat 80 euro balio du, eta gainerakoentzat 100 euro.

Garatuko dituzten askotariko ekimenen artean Hontza Extremabentura parkerako irteera dago. Beste egun batean *Euskara eta kirola* izeneko hitzaldia eskainiko dute Mirandes taldeko jokalariek Koikili Lertxundik eta Athleticoko Gaizka Tokero.

> **FUTBOLA**

## Kulturalak Balmasedan amaituko du liga

Gaur arratsaldean Hirugarren Mailako futbol liga amaituko du Durangoko Kulturalak Balmasedan (Bizkaia) egingo duen bisitan. Goitik beherako bidea egin du aurrerantzat. Azken bost partiduetatik lau galdu egin ditu, eta taularen erdialdetik behera kokatu da. Joan zen asteburuan azken tokian sailkatuta dagoen Retuertori irabazi zion, aurrerantzat, Tabiran jokatu duen partiduan. Gaur Balmasedan jokatu duen partiduan ez talde batek, ez besteak ez du ezer jokoan. Defentsa arloan arazoak izan ditu Kulturalak aurrerantzat: golik gehien jaso duen bosgarren taldea izan da, 56 golekin.



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- MONTEBIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
